

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.**IRAGARKIA**

AZALPENA, behin bakarrik eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez deitutako egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziko gai-zerrendari buruzkoa. Deialdia A teknikariaren kategoriari dagokion ordainsaria eta nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna duen Teknikari Juridiko eta Kontratazioko Teknikariaren lanpostu bat betetzeko da.

Hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaiak honakoa erabaki du 2024ko martxoaren 5ean:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Bilbao Ekintza erakundeko plantillako lanpostuak jabetzan betetzeko egonkortzeko hautaketa-prozesu berezi eta salbuespenezkoak arautzen dituzten Oinarri Orokorretako (BAO, 237. zk., 2022ko abenduaren 15ekoa) hamalaugarren oinarriko 2. puntuko a) letran ezarritakoa aplikatuz, **adierazten da** 30. gaian Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aipatzen denean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legea (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa; EHAA, 245. zk., abenduaren 26koa; BOE, 5. zk., 2023ko urtarrilaren 6koa) aipatzen dela ulertu behar dela, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean (BOE, 238. zk., 2023ko urriaren 5ekoa) indarrean zegoen araudia delako.

Bigarrena.- Erabaki hau EPE kudeatzeko plataforman argitaratzea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako pertsona guztiek horren berri izan dezaten.

Bilbo, 2024ko martxoaren 5a.

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE